



ERABAKIA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena. Honen bidez deialdia egiten da UPV/EHUko teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako karrerako funtzionarioen lanpostuen lehiaketan hutsik geratu diren plazak betetzeko faserako.

Gerentearen 2025eko azaroaren 3ko erabakiaren bidez, lehiaketarako deia egin zen UPV/EHUko teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko.

Erabaki hartan bi deialdi aurreikusten ziren: lehenengoa, 2026ko maiatzaren 4ko Erabakiaren bidez ebatzi zena, eta bigarrena, lehen faseko esleipenen ondorioz titularrak lanpostu berrietara joan ondoren hutsik geratutako plazak betetzeko.

Eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz (Universidad el País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2025eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta haren gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena, 2025eko otsailaren 19ko EHAA), honako hau,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Lehiaketarako deialdia egitea erabaki honen I. eranskinean zerrendatutako lanpostuak betetzeko. Lanpostu horiek dira hutsik geratu direnak lehiaketako lehen fasea ebatzi ondoren (2026ko maiatzaren 4ko Erabakia) lanpostu horretako titularrak beste lanpostu batzuetara joan direlako.

Bigarrena.- Onartzea lehiaketaren oinarriak. Funtsean, lehen faseko berberak izango dira, bigarren fasearekin bateraezinak diren puntuetan izan ezik.

GINARRIAK, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO KARRERAKO FUNTZIONARIOEN LANPOSTUAK ESLEITU ONDOREN HUTSIK GERATUTAKO LANPOSTUAK BETETZEKO LEHIAKETARENAK.

1.- LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

1.1.- Lehiaketa honetan parte har dezakete 2025eko azaroaren 3ko Erabakiaren 1. oinarrian aipatzen diren Euskal Herriko Unibertsitateko karrerako funtzionarioek, baldin eta aurreko fasean parte hartu ez badute, edo, parte hartu badute, lanpostu berririk eskuratu ez badute.

1.2.- Ezin izango dute orain parte hartu lehen fasean parte hartu arren eskaria bertan behera utzi zutenek.

Parte hartzeko ezinbestekoa izango da deialdi honetako oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzea, bai eta lanpostu bakoitzerako eskatutakoak ere (I. eranskinean daude jasota lanpostuak eta lanpostu bakoitzaren ezaugarriak).

2.- MEREZIMENDUEN BALORAZIOA.

Deialdi honetara aurkezten diren merezimenduen balorazioa 2025eko azaroaren 3ko Erabakiaren 2. oinarriaren arabera egingo da.

3.- MEREZIMENDUAK ETA BETE BEHARREKO BALDINTZAK EGIAZTATZEA.

3.1.- Merezimenduak eta baldintzak egiaztatuko dira 2025eko azaroaren 3ko Erabakiaren 5. oinarrian zehazten den moduan.



3.2- Parte hartzeko baldintzak betetzeko eta alegatutako merezimenduak izateko erreferentziako data 2025eko azaroaren 25a izango da.

4.- EPAIMAHAIA.

Epaimahaiaren osaera 2025eko abenduaren 11ko Erabakian argitaratutakoa izango da.

5.- LANPOSTUAK ESLEITZEKO LEHENTASUNEN HURRENKERA.

2025eko azaroaren 3ko Erabakiaren 8. oinarrian zehaztutakoa aplikatuko da.

6.- ESKARIAK AURKEZTEA ETA ONARTZEA.

6.1.- Eskabideak 2025eko azaroaren 3ko Erabakian jasotako 4. oinarrian ezarritako moduan aurkeztuko dira, aurkezteko epeari dagokionez izan ezik; epe hori hamabost egun naturalekoa izango da, ebazpen hau langileen atarian eta deialdiaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera:

Argitalpenok izango dira balio izango duten bakarrak oinarri hauetan ezarritako epeak zenbatzerakoan. Era berean, hori izango da interesatuei jakinarazpenak egiteko era. Horrela, bada, informazioa ez da zertan beste iragarki ohol edo hedabide batzuetan argitaratu.

6.2.- Lehen fasean parte hartu dutenek ez dute dokumenturik aurkeztu beharko bete beharreko baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko.

7.- LANPOSTUAK ESLEITZEA

2025eko azaroaren 3ko Erabakiaren 9. oinarrian zehaztutakoa aplikatuko da.

8.- LANPOSTUA JABETZAN HARTZEA.

2025eko azaroaren 3ko Erabakiaren 10. oinarrian zehaztutakoa aplikatuko da.

9.- DATU PERTSONALEN BABESA PROZESUAREN BIGARREN FASEAN.

Lehiaketaren bigarren fasean datu pertsonalak lehen faseko baldintza berberetan kudeatuko dira.

10.- ERREKURTSOAK.

Erabaki honen kontra, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko gerenteari hilabetearen epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazio auzietako epaitegian bi hilabete epean, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Leioa, sinadura elektronikoren egunean,

Javier Varona Guarás

EHUko gerentea